BIZITEGI ERAIKINA — HERNANI 4

D MAILA





Egilea eta data: Benito Olasagasti; 1879

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena (laugarrena gauzatzen ari den proiektuaren aldaketa gisa), gehi 1934ko bi jasodura, lehena mantsardatua (gero erdialdean zabaldu zena) eta bigarrena atzeraemana. Behe oinean hareharriz xaflatuta berritu da fatxada. Lehen oina entokatua, kuxadurak simulatuta, mentsula moldekatu bidez. Gainerako goi oinak entokatuta, azpadurak nabarmenduta. 1935ean eraikitako hormigoizko begiratoki zutabe bat du 2., 3. eta 4. oinetako ezkerraldeko baoan.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak (jasodurak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak (gaur egun ezkutatuta); elementu moldekatuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.